



UDALAREN SANEAMENDU SISTEMA OROKORRERA DOAZEN HONDAKIN-UREN ISURKETA ETA ARAZKETA ERREGULATZEN DUEN ARAUDIA

I. kapitulua

APLIKAZIO-EREMUA ETA HELBURUA

1. Artikulua. - Helburua

Araudi honen xedea, bere ezarpen eremuko estolderia sare publikora egin daitezen isurketak araupetzea da; helburuak ondokoak dira:

- Sare hori eta bere instalazio osagarriak babestea; eta beren integritate materiala eta funtzionala zaintzea.
- Ustiapen eta mantenimendu lanak egiten dituzten pertsonen segurtasuna bermatzea.
- Hondakin urak arazteko prozesuak babestea.
- Pixkanaka, isurkinerako edo hartzailea izango den uretarako ezarri diren kalitate-mailetara heltzea, horrela, indarreango legeriaren arabera herri osasuna bermatuz.

2. Artikulua.- Aplikazio eremua.

Araudi hau Amorebieta-Etxanoko Udalerriran aplikatuko da.

3. Artikulua.- Definizioak.

Araudi honen ondorioetarako, eta bere aplikazio eta interpretaziorako, definizio hauek erabiliko dira.

A) *Estolderia Sare Publikoa*

Jabetza publikoko obra eta instalazioak, helburutzat Araudiaren ezarpen eremu geografikoan ekoizten diren hondakin urak bildu eta bideratzea dutenak.

Sarearen barruan ondorengo elementuak bereiz ditzakegu:

1.- *Tokiko sareak edo udal estolderia*: Udal mugarte baten edo horren zati baten hondakin urak edota euri urak bildu eta ondoren urok sare orokorrera edo araztegitara bideratzen edo botatzen dituzten estolda, kolektore eta elementu osagarriak.

2.- *Sare orokorrak eta oinarrizko sarea*: Toki sareen edo udal estolderien erabiltzaileen hondakin urak biltzen dituzten kolektoreak, tartean hartzekoak eta elementu osagarriak, eta, salbuespen gisara, sare pribatuen erabiltzaileen hondakin urak biltzen dituztenak, urok araztegitara bideratzeko.

B) *Estolderia sare pribatua*

Gero, herriko estolderia sarean edo araztegian isurtzeko, jarduera bat edo zenbaitetatik datozen hondakin urak biltzen dituen jabaritze pribatuko instalazio multzoa.

C) *Araztegia*

Toki sare eta sare orokorretatik, edo zuzenean erabiltzaileengandik datozen hondakin uren arazketarako beharrezkoak diren egitura, mekanismo eta instalazioen multzoa.

D) *Aurretratamendurako planta*

Araudi honek ezartzen dituen eskakizunei egokitzeko, industri edo merkataritza jarduera baten edo gehiagoren hondakin uren tratamendurako dauden egitura, mekanismo eta instalazioen multzoa, helburua jarduera horien hondakin urak herriko estolderia sarean edo araztegian hartuak izan daitezen bideratzea delarik.

E) *Isurkin berezietarako planta zentralizatu*

Aurretiaz tratatu arren, Udaleko estolderia sarean edo araztegian onartu ezin diren hondakin uren tratamendurako erabiltzen diren egitura, mekanismo eta instalazio publiko edo pribatuak.

F) *Erabiltzailea*

Pertsona natural edo juridikoa, etxebizitza, jarduera, denda edo industri baten titularra izanik, hondakin urak ekoizten dituen. Erabiltzaile mota hauek bereizten dira:

A mota: Ura etxebizitzan baino ez duena erabiltzen, hots, urari inolako merkataritza edo industria erabilerarik ematen ez diona; aipatu dugun erabilerarako ez da gaindituko 1.000 m³/urteko/etxebizitzako kopurua.

B mota: 1.000 m³/urteko/etxebizitzako kopurua gainditzen duten etxebizitza erabilerak eta 350 m³/urteko baino isurketa baxuagoa, eta isurkin horrek 200 biztanlek kutsatzen dutenaren baliokidea baino zama kutsakor baxuagoa duten erabiltzaile eta merkataritza eta industri jarduerak.

C mota: merkataritza edo industri jardueretarako ura erabiltzen duena, 350 m³/urteko baino gutxiago isurtzen dituztenean eta isurkin erasokorrak egiten dituztenean, horren zama kutsakorra 200 eta 5.000 biztanleren artekoaren baliokidea izanik, beti ere honako araudi honen 16. art.an zehazten denaren arabera.

Halaber, aurreko lerroaldean azaldu diren baldintzak bete ez eta kolektoretara isurkin erasokorrak egiten dituztenean, edo metal astunak edo gai inhibitzaileak sailka daitezkeen bestelako elementuak dituztenak, horiek guztiak arazketa prozesuen kalterako izango liratekeelako.

D mota: merkataritza edo industri jardueretarako erabili eta 5.000 biztanle baino gehiagoren parekidea den zama kutsakorra ekoizten duena, beti ere honako araudi honen arauen arabera zehaztuta eta guztira isurkinen kopurua 350.000 m³/urteko baino altuagoa denean.

Erabiltzaile bati dagokion sailkapena aldatu egiten bada, automatikoki, maila berri horrentzat honako araudiak ezartzen dituen betebeharrak hartzen ditu.

Jarduera, lizentzia fiskal, eta abarren arabera bidezkoak direnak ezezik, bere hustuketa bidea estolderia publikoa denean, honako araudi honen ondoretarako jarduera industrializat joko dira, eta bolumenaren eta zama kutsakorren arabera, bidezko erabiltzailearen mailan sailkatuko dira; besteak beste, hauexek:

- Hondakin solidoen udal eta industri zaborteziak.
- Hala denean, unti zatiketak.
- Berez industri eta ekoizpenerako jarduera gisa sailkatu ezin arren, isurkin kutsakorren iturri izan daitekeen bestelako edozein erabilera edo zerbitzu, hala publikoak nola pribatuak.

G) *Kontrolgunea*

Erabiltzaile baten isurketak jasotzen dituen sarbide errezeko barrunbea eta instalazioak; toki horretan, estolderia publikora bota aurretik edo beste erabiltzaile baten/batzuen isurketekin bat egin aurretik, neurtu eta laginketari ekin ahal izango zaio.

II. Kapitulu

ESTOLDERIA-SARE PUBLIKOAREN ERABILERA

4. Artikulu.- Estolderia sare publikoaren erabilera.

Hondakin uren hustuketarako sare publikoaren erabilera derrigorrezkoa izango da A eta B motetako erabiltzaileentzat, erabiltzaile horien establezimendua hurbilen dagoen estolderia publikotik 200 m. baino hurbilago dagoenean. Erabiltzaile horientzat beharrezko aurrikuspenak hartuko dira, eta hondakin uren isurketa aipatu estolderia sarean egin dadin beharrezko obrak burutuko dira.

Hondakin uren isurketa, orokorrean, tokiko estolderia sareetan egingo da, eta salbuespen gisa, sare orokorretan edo araztegietan. Delako apartekotasun hori, C eta D erabiltzaileen kasuetan baino ez da ezarriko, eta edozein kasutan, Partzuergoak jarraian adieraziko diren inguruabarren arabera bidezkozat jotzen duenean:

- Isurketen osaketa
- Isurketa horien bolumena, kopurub horrek sarearen ur-kapazitatea ikutu dezakeenean.
- Hurbilen dagoen ur-sarearekiko distantzia gehiegizkoa izatea.
- Hori egitea aholkatzen duten bestelakoak.

C eta D motetako erabiltzaileak eta A eta B motetakoek, beren establezimendua hurbilen dagoen estolderia publikotik 200 metro baino gehiagora daudenean, honako hauen artean hautatu ahal izango dute:

- Estolderia sare publikoaren erabilera, beti ere araudi honetan ezarri denarekin bat eta beharrezkoak diren obra eta instalazioak bere kontura egin eta gero.
- Isurketa zuzenean egitea estolderia publikotik kanpo; horretarako, isurketari ekiteko, baimena eman beharko dute eskumendun agintariak; eta Udalak isurketa-lekapena eman beharko du, Araudi hoentako 9. art.an eta horri datxezkonetan xedatutakoaren arabera.

5. Artikulu.- Estolderia sarearen artapen edo kontserbazioa.-

Estolderia sare publikoaren artapen eta mantenimendua Udalaren ardurapekoa izango dira, edo subsidiarioki, zerbitzu hori eskuordetzan eman dakien enpresen edo erakundearen kontura.

Estolderia sare pribatuen artapena eta mantenimendua, sare horiek beren hondakin urak hustutzeko erabiltzen ditu(zt)en pertsonaren edo pertsonen kontura izango da. Aipatu estolderia sare pribatu horien erabiltzailea pertsona natural edo juridiko bat baino gehiago balitz, erabiltzaile multzoak funtzionamendu egokirako beharrezkoak liratekeen artapen eta mantenimendu lanak burutu beharko lituzke. Erabiltzaileek elkartasunezko betebeharrak izango dituzte Udalarekiko, eta beraz, azken horrek, erabiltzaile bakoitzari betebeharrak oso-osoan betetzeko eska diezaioke, beti ere, errekerituak, doakion heinean, gainerako behartuen kontra errepikatzeke duen eskubidearen kalterik gabe.

6. Artikulua.- Estolderia sare publikoarekiko hartunea. Koltralgunea.

Estolderia sare pribatuek bereiztuta bideratu beharko dituzte euri urak eta hondakin urak, estolderia sare publikoarekin edo araztegiarekin bat egin arte; beraz, beti ekin ahal izango zaio bai ur mota batzuen edo bai besteen identifikazioa, laginketa eta beharketari, beti ere atal honi buruz xedapen iragankorretan ezarrita dagoenaren kalterik gabe.

Erabiltzaile bat baino gehiago ikutzen dutenean, B, C edo D motako erabiltzaile bakoitzaren isurketak besteekin bat egin aurrekin banan-banan aztertzeke moduan eraikiko dira estolderia sare pribatuak.

Estolderia sare pribatuen eta toki sareen arteko lotunea udalerrri bakoitzeko arauetan zehazten den eran egin beharko da.

Sare orokor eta araztegi-tara egiten den konexioa, lotunea edo isurketa, Udalak, isurketaren eta dagokion sare edo plantaren ezaugarriak kontutan hartuta, bidezko baimena ematen duenean ezartzen dituen baldintzen arabera egin beharko da.

Udalak, sare pribatu baten eta estolderia publikoaren arteko konexioa burutzeko obrak egin ahal izango ditu, ondorengo kasuetan:

- Direlako obra horien burutzapenerako beharrezkotzat jo dezanean.
- Administrazio-ko arazoak hori aholka dezanean.

Bai kasu batean eta bai bestean, kostua erabiltzailearen kontura izango da.

C eta D motako erabiltzaileek beren sare pribatuen bukaeran eta estolderia sare publikoarekin bat egin aurretik, baina sarearen atal gisa, ondoko elementu hauek izango dituen kontrolgune bat instalatu beharko dute:

a) Erregistro putzua

Sarbide erraza duen putzua, interferentzia gabekoa, estolderia sare publikoko sarearekin konexioa egin aurretik. Erabiltzaileak Udalari bidali beharko dizkio putzu hauen eta elementu osagarrien kokaeraren planoak, erakunde horrek errolda eta identifikazioa egin dezan.

b) Kontrolerako elementuak

Erregistro putzu bakoitzak beharrezko elementuak izango ditu neurketak erraz egiteko; baita ur- emaria une oro neurtzeko ere, erregistro eta totalizadoreekin; halaber, elementu horiek, inoiz lagin hartzaile automatikoa eta bestelako kontrol aparatuek instalatzeko aukera ere eman beharko dute.

Zilegi den kasu guztietan, erabiltzaile baten isurketak estolderia sare publikora isuri aurretik, kontrolgune bakarretik igaro beharko dira. Dena dela, aparteko kasuetan, eta isurketen pilaketa zaila balitz, bi edo gehiago egiteko aukera zabal daiteke.

7. Artikulua.- Isurketa debekatuak eta mugatuak.

7.1.- Debekatuak

Debekatuta dago ondoko hauek estolderia publikora isurtzea:

a) Ondorio hauetariko bat ekar dezakeen edozer:

- Nahastuz gero, sukoiak edo lehergaiak direnak sortzea.
- Instalazioetako materialetan ondorio korrosiboak dituztenak.
- Tutuetan jalkipenak, eragozpenak eta poxelamenduak sortzen dituztenak, eta horrela uren fluxu askea eta mantenimendurako lanak eragozten dituztenak.
- Ingurugiro-baldintza toxikoak, arriskutsuak eta gogaikarriak sortuko dituztenak eta behaketarako, garbiketarako, mantenimendurako edo instalazioen funtzionamendurako langileen sarbidea eragoz dezaketenak.

Araztegien barruko prozesu eta eragiketetan eragozpenak sortzen dituztenak eta araztegi horren diseinuan aurrikusi diren tratamendu mailak ematea ekidin dezaketenak.

b) Jarraian adieraziko ditugun ekoizkinak, beren kantitateak aurreko atalean aipatu ditugun ondorioak izan ditzaketenean:

- Gasolina, bentzenoa, nafta, fue-oila, petrolioa, olio lurringarriak, toluenoa, xilenoa edo sukoi eta lehergarria den bestelako edozein solido, isurkin edo gasa.
- Kaltzio-karburoa, bromatoa, kloratoak, hidruroak, perkloratoak, peroxidoak eta abar, eta potentzialki arriskutsuak izan daitezkeen izaera ez organikodun gai solido, isurkin edo gasak.
- Leherpen motoretik edo bestelako osagai batetik datozenak eta airearekin bat egiterakoan toxikoak, sukoiak edo leherkorak izan daitezkeen gasak. Ondorio horretarako, isurketa estolderia sare publikoko sarera egiten den tokian egingo diren leherketa-neurgailu bidezko neurketak lehertzeko indizearen gutxienezko mugaren %10etik beherakoak izango dira.
- Errautsak, gedarrak, hondarra, lumak, plastikuak, zura, odola, zimaurrea, animalien hondakinak, ileak, erraiak eta oztopoak sortzen dituzten gainerako gaiak edo mantenu eta garbiketa lanetan eragozpenak sortzen dituztenak.
- Disolbatzaile organikoak, pinturak eta koloratzaileak, berdina da proportzioa zein den.
- Olio eta gantzuak, berdina da mileral, landare edo abereena izan.
- Farmazia industrietako edo osasun zentroetako botatzeko moduko farmakoak, araztegiatan aldarazpenak sortzeko gai direnean.
- Hondakin zehamakinetakako solidoak, hala etxeakoak nola industrietakoak.
- Gai toxiko edo arriskutsuei buruzko indarreango legerian azaltzen diren ekoizkin guztiak.

Honako debeku hauek 7.2 atalean zehaztuta dauden hondakin uretako gehienezko kontzentrazioetan ekoizkin batzuentzat ezarri denaren kalterik gabe izango dira.

c) Honako isurketa hauek:

- Industri isurketak, botatzeko moduko isurkin kontzentratuak direnean, beren tratamendua planta espezializatu edo zentralizatu bati dagokiola.

- Tenperaturaren muga bete arren (honako kapitulu honetako 1. mota) estolderia sare publikoko sarean edo plantan egon daitezkeen tenperaturetan pasta edo solido bilaka daitezkeen isurketa likidoak.

- Erregaien, errektiboen eta lehengaien biltegi-tankeak garbituta, lantzean behin suertatzen diren isurketak. Aitatu garbiketa horien ondorioz sortzen den hustuketa ez da inoiz estolderia sare publikora zuzenduko.

- Ur gaziko isurketak, ura itsasokoa edo itsas-lehorreko aldekoa denean.

d) Diluzio ura

- Isurketekin ezin erabili izango da diluzio urik, larrialdi edo arrisku kasuetan izan ezik.

7.2. Mugak

Estolderia sare publikora isurtzen diren hondakin uren alorrean, bi motako mugak ezarri dira:

a) *I. motako mugak:*

Hauen helburua estolderia publikoko narriadura fisikotik babestea da.

Orokorrean, isurkin bakoitzak isurketa egiten den lekuan bete beharko ditu baldintza hauek (ikus I. koadroa).

b) *II. motako mugak:*

Kasu honetan, xedea arazketaren prozesua eta araztegi-tara heltzen den azken isurkinaren kalitatea babestea da.

Orokorrean, isurkin bakoitzak isurketa egiten den lekuan bete beharko ditu baldintza hauek (ikus I. koadroa).

I KUADROA MUGAK

MUGAK				
Parametroa	Ikurra	Unitatea	I mota	II mota
Tenperatura	T	°C	45	45
pH	pH	—	6:9,5	6:9,5
Sólidu jalkigarriak	S.S.S.	mg/l	600	600
N - Amoniakal erasokorra	N eras	mg/l	120	120
N - Amoniakala	N - NH ₃	—	—	300

Olio edota Koipeak (abereenak zein landareenak)	O eta K	mg/l	500	500
Olio mineralak	—	mg/l	50	50
Zianuro totalak	CN ⁻ tot.	mg/l	2	2
Sulfuroak	S ⁻	mg/l	2	2
Sulfatoak	SO ₄ ⁻	mg/l	1.500	1.500
Fenolak	—	mg/l	—	50
Arsenikoa	As	mg/l	—	1,5
Kadmioa	Cd	mg/l	—	1,5
Kromoa totala	Cr/Tot.	mg/l	—	7,5
Kobrea	Cu	mg/l	—	7,5
Burdina	Fe	mg/l	—	150
Níkela	Ni	mg/l	—	5
Beruna	Pb	mg/l	—	3
Zinka	Zn	mg/l	—	15
Merkurioa	Hg	mg/l	—	1,5
Zilarra	Ag	mg/l	—	1
Toxizitatea	—	equitox/m ³	—	50

Araudi honetan ageri diren mugak inoiz edo behin aldarazi ahal izango dira, C eta D motetako erabiltzaile jakinei isurketa egiteko baimena ematen zaienean, baldin eta saneamenduko instalazioen kudeaketa orokorrari loturiko aparteko arrazoiak badaude; esaterako, zenbait kutsagairen balantze orokorrak, emaitzako diluzio graduak, kalitatea hobetzea.

Udalak arrazoi horiek aztertuko ditu, eta ondoren, dagokion erabakia hartuko du.

8. Artikulua.- Aurretratamendua

Honako araudi honetan, hondakin urak estolderia sare publikoan isurtzeko ezarri diren mugak betetzen ez dituzten urek erabiltzailearen pentzura egingo den aurretiatzko bidezko tratamendua jaso beharko dute; eta gero, hala denean, estolderia sare publikora hustu ahal izango dira.

Aipatu hondakin ur hauen aurretratamendurako beharrezkoak diren instalazioak estolderia sare pribatuaren atala izango dira, eta era egokian definituta egongo dira isurketa-baimenaren eskabidean; eskabide horri bidezko egitasmoa eta bere eraginkortasunari buruzko kalkulo bidezkotuak itsatsiko zaizkio.

Salbuespen modura, erabiltzaile bat baino gehiago beren isurkinen aurretratamendua egiteko biltzen direnean, multzo osoaren isurkinaren isurketa osorako baimena beharko dute eskuratu, eta taldea osatzen duten guztien aitortpena beharko da. Isurketaren baldintzak betetzeko erantzunkizuna, erabiltzaile-elkarteaarena izango da eta, sorospidez, erabiltzaile bakoitzarena.

Edozein kasutan, isurketa-baimena aurretratamenduaren eraginkortasunaren pentzura egongo da, eta tratamendu horren emaitzak aurrikusi diren modukoak ez balira, aipatu baimena ondoriorik gabe geratuko da, eta debekatu egingo litzateke hondakin urak isurtzea estolderia sare publikora.

9. Artikulua.- Hondakin urak iraitzeko beste era batzuk.

Bidezko aurretratamenduari ekin arren ekoiztu diren hondakin urak honako araudi honetan estolderia sare publikora isurketak egiteko ezarri diren mugen artean ezin direnean eduki, interesatuak hondakin ur horiek ekoizten dituen jarduera laga egin beharko du, edo bestela, beharrezko neurriak hartu; horretarako, estolderia sare publikoan edo araztegien onartezinak diren hondakin urak bestelako baliabide batzuen bidez biltzeko eta baliabide egokiak erabiliz indarreango araudiarekin batera etorriko den azken destinoa ziurtatuko duten planta zentralizatu, bestelako planta berezi edo segurtasunezko biltegi batera garraiatzeko beharrezko obrak eta instalazioak beharko ditu eraiki.

Ondorio horietarako, interesatuak estolderia sare publikora isurketak egiteko, bidezko lekapena eskatu beharko du; eskabide horrekin batera, estolderia sare publikora isurketa egiteko ezintasuna frogatu duen azterlana aurkeztu beharko du, eta hala denean, eskumendun agintaritzak eskatu dion instalazioen egitasmoa.

Estolderia sare publikoan isurketak egiteko lekapena ematerakoan ezarriko den aldirokotasunarekin, interesatuak isurketa iraitzeari buruzko bere egoera bidezkotu beharko du.

10. Artikulua.- Larrialdi egoerak

Larrialdi egoeraren bat badago, istripua gertatu delako edo isurkin debekaturen bat sortarazi duen nahasteren bat egin delako, erabiltzaileak berehala eman beharko dio Udalari horren berri, hau balizko kalteak ekidin edo gutxitzen saia dadin.

Erabiltzaileak, behin larrialdi egoera gertatuz gero, eskura dituen baliabide guztiak erabiliko ditu, sor daitezkeen ondorioak ahalik eta gehien gutxitzeko.

Ondorio horietarako, Udalak horrelako larrialdi egoeretan jarraitu beharreko prozedura ezarriko du.

Atal honetan aipatzen diren istripuengatik burutu beharko diren eragiketen kosuta, garbiketa, sare eta instalazioen konponketa edo bestelakoak, erabiltzaile-eragileari egotziko zaizkio, eta berak ordaindu beharko ditu, izan ditzakeen bestelako erantzunkizunen kalterik gabe.

Tokian tokiko sareetan, sare orokorretan eta araztegiatan gertatutako kalteei buruzko espedientea eta horien balorazioa, Udalak egingo ditu.

III. Kapitulu

IKUSKAPENA ETA ZAINZA

11. Artikulua.- Ikuskapena eta zaintza

Udalaren oinarrizko estolderia sarera hustu daitezkeen isurkinen gaineko ikuskapen eta zaintza funtzioak Udalak burutuko ditu, eta hala badakio, funtzio horiek eskuordetzan eman ahal izango ditu.

11.1 Sarbidea

Langilegoak dagokion ikuskapena eta zaintza funtzioak era egokian betetzeko, beti ere horretarako bidezkotuta dagoenean, hondakin urekin zerikusia duten erabiltzaileen dependentzietara sartzeko eskubide osoa izango du. Eskubide hori funtzio horien erlazioan xedapen zehatzak betetzearen kalterik gabe da, beti ere horrelako xedapenik balego.

11.2 Funtzioak

Ikuskapen eta zaintza lanetan ondoan adierazten diren egiaztapenak burutuko dira:

- Laginak hartu, hala azken isurketarenak nola hori osatzen duten funtsezko isurketenak. Halaber, euri uren laginketari ekin ahal izango zaio, nahiz eta horiek eta hondakin urak bereiztuta hustu.
- Ur-etorriak neurtu, hala norbanakoen isurketena nola isurketa orokorrarena.
- Prozesuetan sartzen diren ur bolumenak neurtu.
- Erabiltzailearekin bat uraren balantzea egiaztatu: sare publikoko urak, erabiltzailearenak diren baliabideak eta bestelako kaptazioak.
- Isurkinen egoera, instalazioak eta elementuen funtzionamenduaren kontrolari ekiteko bidezko isurketa baimenean ezarri direnak egiaztatu (ur-etorriaren neurgailuak, PHaren neurgailuak, tenperaturaren neurgailuak, etab.).
- Erabiltzaileak isurketa baimenean ezarrita dituen baldintzak kontutan hartu eta ea betetzen dituen aztertu.
- Araudi honek hondakin uren isurketaren alorreko gainerako gaietan ezartzen dituenak betetzen dituen ala ez egiaztatzea.

11.3 *Jarduketa erasota uztea*

Kontrolerako ekintza guztiak burutu ondoren (ikuskapena eta zaintza) erabiltzailearen ordezkariak eta jardun duen ikuskatzaileak izenpetuko duten akta egingo da; akta horretan data eta ordua, bete diren funtzioak eta horien emaitza, eta izenpetzaileek adierazi nahi dituzten guztiak erasoko dira.

Akta horren aldaki bat erabiltzailearentzat izango da eta beste bat Udalarentzat.

Halaber, erabiltzaileak bisitaldiaren ondorioz sortuko diren agiri osagarrien aldakia jasoko du.

12. Artikulua.- Autokontrola

C eta D moten barruan sailkatu diren estolderia sare publikoaren erabiltzaileek beren isurketen kontrolerako sistema bat erabili ahal izango dute.

Egitarau honi heldu nahi dion erabiltzaileak Udalaren onespenerarenpean jarri beharko du autokontrolerako proposamena, onetsitako autokontrolerako egitarauaren parte izango da.

Autokontrolerako egitarauan zehar atera diren datuak ondorio horietarako jarriko den erregistro liburu batean erregistratuko dira; liburuan, halaber, isurketekin zerikusia duten gorabehera eta jarduketa guztiak erregistratuko dira. Aipatu datuak, egin daitezkeen ikuskaketen kalterik gabe, kasu bakoitzean ezarriko den aldirotasunarekin Udalarari emango zaizkion eta bidezkotzat jotzen diren begiztapenen pentzura joango dira.

Erabiltzaile batek autokontrol egitarau bat jarraitzen duenean, emaitzak berehalako ezarpena izango dute zama kutsakorren berrikuspenean (16.4. art.).

13. Artikulua.- Laginak

13. 1. *Laginketak*

Laginketak laginaren adierazkortasunean zerikusia izan dezaketen alor guztiak kontutan hartuta burutuko dira.

Laginak toki egokian hartuko dira, hau da, hondakin urak beste erabiltzaile batzuren urekin nahastu aurretik.

C eta D motetako erabiltzaileentzat, laginketa orokorrari ekiteko lekua 6. art.an definitzen den/diren kontrolerako tokia/ak izango da/dira; dena dela, egokitzen jotzen denean, kontrolgunean erabiltzaile beraren beste isurketa batzurekin nahastu aurretik, isurketa zehatz baten laginak egin ahal izango dira. Erabiltzaile hauentzat kontrolgunea 6. art.aren a) eta b) ataletan aplikagarri denari lotuko zai(z)kie. Honen guztiaren definizioa isurketa baimenaren barnean sartuko da.

13. 2 Laginen bilketa eta preserbazioa

Lagintzat hartuko da, aztertutako isurketaren zernolakotasuna ahalik eta zehatzen erakusten duen ur-portzioa.

Laginak hartzen direnean araudi honetan ezarri diren arauak eduki beharko dira kontutan; halaber, horiek guztiak era egokian ezarri daitezzen, Udalak etorkizunean ezar ditzakeenak ere kontutan hartu beharko dira.

Laginak erabiltzailearen ordezkari bat aurrean dagoela hartuko dira, erabiltzaileak eskubide horri uko egiten dionean izan ezik; kasu horretan, gorabehera hori beren-beregin erasoko da egingo den aktan.

Udalak laginketa bati ekiten dion bakoitzean, zati bitan bereiztuko da, eta bat erabiltzailearen esku geratuko da.

Erabiltzaileak araudi honen ezarpenaren ondorioetarako, aurreko emaitzaz erkatzeko, beste laginketa bat egin nahi duenean, Udalari jakinarazi egin beharko dio. Laginketa elkarrekin egingo dute, eta aurreko lerroan adierazi den moduan bananduko da.

Udalak eta erabiltzaileak horrela erabakiz gero, Udalak homologatuta dagoen laborategi ofizial espezializatu bati eman ahal izango dio, bidezko analisiak egin ditzan.

Laginak hartzearen eta analisiaren arteko denbora-tartea, ahalik eta laburrena izan behar da, eta laginketa unean PH, tenperatura eta gas disolbatuei buruzko zehaztapenak egin beharko dira.

Erabili beharreko artapen bideak eta bilketarako gehienezko denbora taula, ondoren azaltzen dira:

II KUADROA

LAGINAK HARTZEKO ETA ARTATZEKO ARAUAK

Zehaztapena	Ontzia	Gutx. tamainoa	Biltegitratzea edota artapena
Azidotasuna	P edo B	100	24 ordu hoztu
Alkalinitasuna	P edo B	200	24 ordu hoztu
DBO	P edo B	1000	6 ordu hoztu
DQO	P edo B	100	Azkar anlizatu: SO ₄ H ₂ gehitu, pH ₂ ra heldu arte

Kolorea	B	500	—
Zianuroak	P edo B	500	24 ordu NaOH gehitu pH 12ri. Hoztu
Fluoruroak	P	300	—
Olioak eta Koipeak	B (aho zabala)	1000	CIH gehitu pH 2ra heldu arte
Metalak	P edo B	—	Metal disolbatuetarako, iragaztebidez banatu, eta segidan 5ml. NO ₃ Hc/l bota.
Amoniakoa	P edo B	500	Arin analizatu, 0,8 ml. SO ₄ H ₂ c/l. gehitu, hoztu
Nitratoa	P edo B	100	Arin analizatu, 0,8 ml. SO ₄ H ₂ c/l. gehitu hoztu
Nitritoak	P edo B	100	Arin analizatu 40 mg. Cl ₂ Hg/l. gehitu
Oxigeno disolbatua	Winkler ontzia	300	Berehala analizatu
pH	P edo B (Bo)	—	—
Fenolak	B	500	24 ordu, PO ₄ H ₃ gehitu pH 4,0ri, eta 1 g. SO ₄ Cu.5H ₂ O/l.gehitu,hoztu
Fosfatoa	B (A)	100	-10°C tan izostu edo/ 49 mg. Cl Hg/l gehitu.
Solidoak	P edo B (Bo)	—	—
Sulfatoak	P edo B	—	Hoztu
Sulfuroak	P edo B	100	4 tanta azetatozko zink gehitu. 2N/10 ml.
Temperatura	—	—	Berehala analizatu

P= plástiko. B= beira. [A = xukaturik NO₃H 1 + 1 [Bo = borosilikatoa. [C = disolbagai organikoez xukatua.

14. Artikulua.- Analisia

14.1 *Analisi metodoak*

Hiriko eta industrietako hondakin urak analizatzeko metodoak, araudi honen ondorioetarako, American Public Health Association (APHA) , American Water Works Association (AWWA) eta Water Pollution Control Federation (WPCF) direlakoek argitaratutao "Standar methods for the examination of water and wastewater" lanean zehazten direnak dira eta amoniako erasokorraren eta toxikotasunaren parametroen kasuan izan ezik, zein DIN 4030 ISO 6341-1982 (F) arabera zehaztuko baitira, hurrenez hurren.

Anasili metodoak aldaketei eta indarrean jar daitezkeen metodo berriei moldatuko zaizkie.

Kasuan kasuan ezarri beharreko analisi metodoa aukeratzeko erabiliko diren irizpideak honen arabera aukeratuko dira: hondakin uren balizko interferentziak, prezisioa, zehaztasuna, emaitza eskuratzeko beharrezko denbora, ekipo bereziak erabili beharra.

Kasu berezietan, analisi metodo desberdinak erabili ahal izango dira; hori eginez gero, jakinarazi egin beharko zaio erabiltzaileari.

Parametroak zehazteko aukeratutako analisi-metodoen erreferentziak Araudi honetako 3. eranskinean erasota daude.

14.2. *Kalitate kontrola*

Udalak, bere laborategietan lortzen diren analisi-emaizten fidagarritasuna bermatuko du kalitatearen autokontrolaren bidez; horretarako, kontrol-lagin bat prozesatuko da, egunean behin gutxienez.

Analisi-teknika bakoitzean desbideraketa estandarrak eta desbideraketa muga onargarriak ezarriko dira. Kontrol mugetatik at geratzen den emaitza oro deuseztuztat joko da, eta analisi teknika berrikusteari eta ondoren analisia berriro egiteari ekingo zaio.

Inoizka, Udalak kalitatearen kanpo kontrola burutu ahal izango du, hots, bere laborategiena, erreferentziako lagin batzuen emaitzak laborategi ofizial espezializatu batekoekin kontrastatuz.

15. Artikulua.- Analisi-emaizten artean aldeak sortzen diren kasuak.

15.1 Oro har

Udalak lortzen dituen analisi-emaiztak eta erabiltzailearenak bat ez datozen kasuan, ondoan azaltzen den era honetara jardungo da:

- Udalak burutu beharreko era eta mota, eta zehaztu beharreko parametroak definituko ditu.
- Egoki diren analisi-zehaztapenak homologatutako laboratorietan egingo dira.
- Proba-laginketak egiteko behar diren jarduketak erabiltzailearen ordezkarien aurrean egin ahal izango dira, eta egoki den akta egingo da, alderdi biek bidezkozat jotzen dituzten adierazpen guztiak erasoz.

Baldin eta ezarririk dauden proba-laginketa(k) egin ondoren aldea badago, erazko laginketa egiteari ekingo zaio.

- Proba-laginketen kostua erabiltzailearen kontura izango da, baldin eta emaitza lehenik lorturikoaren \pm %20tik gorakoa ez bada.

15.2 Erazko laginketa

Laginak Udalaren pertsonalak edo EDAR-en ustiakuntzarako esleipendun enpresak hartuko ditu, erabiltzailearen ordezkarien aurrean.

Laginak hartu aurretik, fabrikazioaren prozesuak ohiko eran funtzionatzen duela frogatu beharko da.

Laginketa eta bestelako frogak notarioaren aurrean egingo dira, eta honek dagokion akta egingo du.

Laginen analisia Udalak zehaztu beharreko laborategi ofizial espezializatu bati aginduko zaio, eta horrek araudi honetan definitzen diren analisi-tekniken arabera burutuko du.

Analisi horien emaitza loteslea izango da Udala eta erabiltzailearentzat.

IV. Kapitulu

ZAMA KUTSAKORRA

16. Artikulua.- Zama kutsakorraren zehaztapena.

Isurkin baten zama kutsakorraren ebaluazioa bi eratarata egin ahal izango da:

4 -Kutsadura koefiziente zehatzen esleipen-taula ezarriz.

-Zuzenean neurtuz.

16.1. *Kutsadura koefiziente zehatzen esleipen-taulen ezarpena.*

Arau honen 2. eraskinean industri jarduera bakoitzaerako kutsadura indize zehatz batzuk definitzen ditu.

2. eranskineko balioak ezarriz egiten den zama kutsakorraren zehaztapena kasu bakoitza jarduera aplikagarriaren barruan sartuz burutuko da.

Horretarako, kasuan kasuko ereduazko definizio-datuak eskatuko zaizkio erabiltzaileari (ekoizpen kopurua, plantila, erabiltzen den prozesu mota, etab.). Horrez gain, ur-etorria ezagutu beharko da, zenbakailuaren irakurketaren bidez edo erabiltzaileak ematen duen datuaz, baldin eta jarduera berria bada.

16.2 *Zuzeneko neurketa*

Isurkin baten zama kutsakorra zuzenean neurtuz zehazteko ondoko pausu hauek emango dira:

1. Informazioa lortu.

1.1. B ereduko galdesorta bete (1.3. formularioa)

1.2. Karakterizazio planta prestatu.

1.3. Lagin eta analisisien bidezko karakterizazioa egin.

2. Eskuarteko datuak aztertu ondoren, zama kutsakorra ezarriko duen txostena prestatu.

16.3 *Zama kutsakor osoaren konputua*

16.3.1. *Kopurua*

Ondoko kontzeptu hauek konputatuko dira:

- Horniketako sare publikotik hornitzen den ur kopurua.

- Baliabide propioetako ur kopurua (azaleko hartuneak, emakidak, iturburuak, putzuak, etab.) zenbakailuz neurtua.

- Euri-uren kopuru konputagarria, dreñaia-azalerari 700 mm./urteko euri-tasari ezarriz lortua (uren etorriaren koefizienteaz ukitua).

Euri uren kopurua konputagarria izango da, baldin eta estolderia sare publikotik desbideratu ahal izanik sare horretan bertan isurtzen bada.

Halaber, konputagarria izango da, baldin eta desbideratu ezin eta gainerako hondakin urekin batera isurtzen bada.

- Ekoizkina galdu duen edo horri batu zaion ur kopurua.

- Isurtzen den ur kopurua.

Horniketako sare publikotik ez datozen ur kopuruak eta zenbait kontsumo gunetako kopuruak baloratzeko, erabiltzaileek guzti horren integrazioarako behar diren neurgailuak instalatu beharko dituzte.

A ereduko erabiltzaileen kasuan, isurtzen diren urak eta hornitzen diren urak bat datozela joko da. D ereduko kasuan berdin joko da, aurkako froga sinesgarria ematen denean izan ezik.

16.3.2. Zama kutsakor osoa

a) A eta B ereduko erabiltzaileak:

Erabiltzaile hauen kasuan, hornitu diren kopuruei ondoko kontzentrazioak ezarri lortuko da zama kutsakorra:

DBO 305 mg/l (61 gr./biz./egun)

DQO 500 mg/l (DBO/DQO=0,61)

DQO ez jalkigarria 350 mg/l

Guztirako SS 450 mg/l

Jalkidura SS 292 mg/l

Konp. nitrogenatuak (NTK) 58 mg/l

Inhibizio-gaiak (toxikotasuna 0 ekitox/l).

b) C eta D ereduko erabiltzaileak

Erabiltzaile hauen kasuan, ondokoak hartuko dira kontutan:

- 16.1 eta 16.2 artikuluetan jaso diren prozeduren bidez ezarritako prozesuetako ondakin-uren zama kutsakorra.

- Komunitateko uren zama kutsakorra 50.1/enpleg/eguneko zuzkidurari aurreko atalean ezarri diren kontzentrazioak esleitzuz zehaztuko dira.

- Euri urak funtsean, ur kutsatugabekotzat hartuko dira. Hala era, kontrolpean egonen dira. Erabiltzaileak kontutan hartuko du kutsadura nabarmenaren presentzia ezartzen duten neurrien ezarpena.

16.4. Zama kutsakorraren egunerapena.

Udalak, erabiltzaile baten isurketen karakterizazioa behin eginez gero, horien aldiroko kontrola burutuko du, ondoko helburu hauekin:

- Isurketa egiteko baldintzak betetzen direla frogatzea. Isurketak egiteko baimenaren 5. atala.

- Zama kutsakorraren bilakaerari buruzko datutak ematea.

Zama kutsakorraren egunerapena sei hilabeterako egingo da, sei hilekoan zehar lortzen diren datuen bataz-besteko aritmetikoa kalkulatu.

Udalaren iritziz, emaitzaren bat atipikoa bada, kalkulatik at geratuko da, eta horren ordez beste laginketa bat egitea erabaki ahal izango da.

17. Artikulua.- Biztanlego baliokidearen kalkulua

Biztanlego baliokidea zehazteko, oinarritzat hartuko da etxeko isurkinen kutsadura-mota, ondoan azaltzen diren biztanleko balio hauen arabera:

GO = gai oxidagarria = 0,1 kg./eguneko DQOn

SG = suspentsioan dagoen gaia = 0,09 kg./eguneko SSTn

KN = konposatu nitrogenatuak = 0,0116 kg./eguneko NNTKn

IG = inhibizio gaia = 0,00 k ekitox/egun/toxikotasuna

Zama hauekin bat, ondoko formula honen arabera definitzen da erreferentzia balioa:

$$E = 0,1 + 0,09 + 0,0116 = 0,2016$$

Definitu beharreko industri isurketan arestian erabili diren parametro eurak zehaztuko dira (eguneko kg.tan) eta "m" biztanlego baliokidea lortuko da, ondoko formularen arabera:

$$\text{ekitox/egun)m} = \frac{\text{GO (kg/egun) + hilabetea (kg/egun) + KN (kg/egun) + 10 x IG (K ekitox/egun)}}{0,2016}$$

V. Kapitulu

ISURKETAK EGITEKO BAIMENAK

18. Artikulua.- Isurketak egiteko baimenak

Hondakin urak estolderia sare publikoaren bidez husteko, edo araztegiara zuzenean isurtzeko, araudi honetan xedatzen denaren arabera, egoki den Udalaren berariazko baimena beharko da, horren xedea erabilera hori ezarririk dauden araei lotzen zaiela frogatzea da, eta bai hondakin uren konposaketa eta ezaugarriak finkaturik dauden mugen barnean artatzen direla ere. Baimen hori isurketa baimena izango da.

Salbuespen gisa, hondakin urak estolderia sare publikoaz besteko bide eta prozeduraz husteko, isurketa lekupena beharko da, honako araudi honen 4. eta 9. art.an ezartzen denaren arabera.

19. Artikulua.- Isurketa-baimenaren ezaugarriak

Isurketa-baimenak berarekin dakar erabiltzaileak sortzen dituen hondakin urak estolderia sare publikora hustutzeko baimena, bertan ezartzen diren baldintzen arabera.

Isurketa baimena, autonomoa izateaz gain, Udal lizentzian sartutako nahitaezko baldintza da merkataritzako eta industriako jarduerak ezartzeko eta egiteko; beraz, isurketa baimena indargabeturik geratzen bada, aldi batez edo betiko, aurrean adierazi dugun udal lizentziari ere gauza bera gertatzen zaio, eta ondorioz jarduerari utzi beharko zaio.

20. Artikulua.- Saillapena eta tramitazioa

A) Isurketa baimena

Isurketa baimena lortzeko, ondoko tramite hauek egin beharko dira:

20.1 Etxe-erabiltzaileak - A ereduko erabiltzaileak.

A ereduko erabiltzaileentzako isurketa baimena lehen erabilerarako Udal lizentziaren barruan emandakotzat joko da.

20.2 Etxe-erabiltzaileak ez direnak

Etxe-erabiltzaileak ez direnak, kolektorarako isurketa baimena lortu beharko dute, jarduerarako udal lizentzia tramitatu baino lehen, art. honen 2.1 atalean xedatzen dena izan ezik.

Erabiltzaileek lizentzia lortzeko aurkezten dituzten agirietan, kolektorarako isurketa baimena agertu beharko da.

Kolektorarako isurketa-baimenaren eskabidea Udalari egingo zaio, Araudi honen 1. eranskinaren I-1.1 formularioa betez.

Isurketa baimenaren eskabidean biltzen den informazioaz erabiltzaileen saillapena egingo da hamar eguneko epean, eskabidea jasotzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Saillapena Udalak berak egingo du.

20.2.1 B ereduko erabiltzaileak

B ereduko erabiltzaileentzako isurketa baimena, Udalaren jarduera-baimenarekin emandakotzat joko da.

Bestalde, esleipena jaso duen enpresa edo erakundeak, hala badagokio, epe berean zehaztu beharko ditu udal baimenan erasota egon beharreko baldintza bereziak edo erabiltzaileak behar izan ditzan agiri osagarriak. Erabiltzaileak murtzilorik aurkeztuz gero, eten egingo da aipaturiko epea eta berri bat hasiko da, proiektua bukatu eta EDARa ustiatzen duen enpresak edo erakundeak hura jasotakoan.

Agiri sorta hori jasotzen den egunaren ondoko zortzi asteguneko epearen barruan, eta agiri sorta hori jaso izanaren adierazpena egin ondoren, enpresak aipatu saillapena baieztatu beharko dio Udalari; hori horrela dela, Udalak udal-lizentzia eman ahal izango du, bidezkoa bada. Epe berean, enpresa esleipendunak erabiltzailea beste eredu batean sartzeari bidezkotzen duten zioak adierazi beharko dizkio Udalari, halakorik egin behar bada; hori gertatzen denean, isurketa baimenari kategoria berriari dagokion tramitazioa emango zaio.

Halaber, esleipena jaso duen enpresak edo erakundeak, hala badagokio, epe berean, adierazi egin beharko ditu Udal lizentzian agertu beharreko baldintza bereziak edo erabiltzailearengandik jaso beharreko agiri osagarriak. Erabiltzaileak murtzilorik aurkeztuz gero, eten egingo da aipaturiko epea eta berri bat hasiko da, proiektua bukatu eta EDARa ustiatzen duen enpresak edo erakundeak hura jasotakoan.

Aipaturiko enpresak, zortzi eguneko epean, inolako adierazpenik egiten ez badu, sailkapen horrekin eta isurketa-baimena emateaz dagoela ulertuko da.

20.2.2. C eta D ereduko erabiltzaileak

C eta D ereduko erabiltzaileek isurketa baimena eskatu beharko diote Udalari, horretarako finkatu den idazki-eredua betez; horrekin batera, jarduerari, hondakin-uren ekoizpenari, eta horien kopuru eta ezaugarriei buruzko galdera sortak bildu beharko dira, behar den moduan beterik, baita jarduera hori ezartzeko egitasmoa teknikoa, estolderia sare pribatuari eta araudi honek eskatzen dituen instalaziorako elementuei buruzkoa ere.

Hondakin uren aurretramentua burutu beharko balitz, horietarako instalazioari eta eskatzen diren ondorioak eragingo dituen justifikazioari buruzko egitasmo teknikoa ekarriko litzateke.

Udalak, aipaturiko agiriak bidali beharko dizkio EDARen ustiakuntzarako enpresa edo erakunde esleipendunari.

Egoki den lizentziaren eskabideaz batera, interesatuak enpresak luzaturiko isurketa baimena ekarri beharko du, eta beharkizun hori bete ezean ez da aipatu lizentzia tramitatuko.

Udalak baimenari buruzko iritzia emanago du bi hilabeteko epean. Hala ere, epe hori eten egingo litzateke, interesatuari bestelako datuak eskatu beharko balitzaizkio.

Baimena besterik gabe eman ahal izango da, edo baldintzapean, baita ukatu ere, eta erabiltzailearen sailkapena jasoko du.

Baimena besterik gabe emateak eskabidearen terminoak zorrotz betetzen direla esan nahi du.

Baimena baldintzekin emango da, eskabidearen terminoak funtsean aldatzen ez direnean, hau da, garrantzi haundirik gabeko zuzenketak egiten direnean.

Baimena ukatzeko zioak aitatu egin beharko dira, halaberharrez; eta behin okerrak zuzendu ondoren, eman egingo da baimena.

Baimena ukatzen bada, udal lizentzia ere ukatuko da.

Baimena emandakoan, eta EDARa ustiatzeko esleipendunak instalazioa eta hondakin uren ekoizpena ezarritakoarekin bat datorrela egiaztatu eta gero, eragindako Udalari horren berri emango zaio. Aipatu Udalak, jakinarazpen hori jaso arte, ezin izango du baimenak xede duen instalazioa irekitzeko baimenik eman ezta jarduera martxan jartze-ko baimenik eman ere.

B) *Isurketa-lekapena*

Estolderia sare publikotik kanpo egin daitezen hondakin uren isurketa lekapenaren tramitazioa, C eta D ereduko erabiltzaileentzat xedatu denari lotuko zaio.

21. Artikulua.- Isurketa baimenaren eta lekapenaren iraungipena eta indar-galtzea.

21.1 Baimena iraungitzat joko du Udalak kasu hauetan:

1.- Urtebetetik gorako denboraldian isurketarik egiten ez denean.

2.- Hondakin urak sortzen dituen merkataritza edo industri-jarduera egiteko, udal lizentzia iraungi, deuseztatu edo ezeztatu dadinean.

21.2 Isurketa-baimena edo lekapena indarrrik gabe utziko ditu Udalak kasu hauetan:

1.- Isurketaren ezaugarriak direla eta, erabiltzaileak araudi honetan ezartzen diren debeku eta mugak edo isurketa baimenean bertan ematen diren debeku zehatzak betetzen ez dituzten hondakin uren isurketak egiten dituenean, eta egoki diren errekerimenduak egin arren horretan irauten duenean.

2.- Erabiltzaileak isurketa baimenean edo araudi honetan ezartzen diren bestelako betebeharrak edo baldintzak betetzen ez dituenean, betetze-ezaren larritasunak edo erabiltzailearen betetzeko etengabeko ezetzak hala beharturik.

21.3 Isurketa baimenaren edo lekapenaren iraungipena edo indar-galtzeak, zein espediente kontrajarri bidez egingo den, estolderia sare publikora isurketak egiteko debekua ezarriko du, eta Udalari sare horretan edo erabiltzailearen sare pribatuan aipatu isurketak fisikoki galarazteko beharrezkoak izan daitezkeen obrak egiteko ahalmena emango dio, kasuan kasu.

21.4 Aurreko ataletan aipatutako iraungipen edo indar-galtzeak, hondakin urak sortzen dituen jardueraren itxiera eragingo du.

VI. Kapitula

BETEBEHARRAK, ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

22. Artikulua.- Erabiltzailearen betebeharrak

Erabiltzaileek ematen zaizkien baimenaren terminoen arabera egin beharko dituzte isurketak, eta horrez gain, ondoko hauek bete beharko dituzte:

1.- Udalari erabiltzaileen titulartasunaren aldaketa adierazi, isurketa baimena egoki den erabiltzailearen izenean jartzeko.

2.- Merkataritza jarduera edo industri prozesuan gerta daitezkeen aldakuntza oro jakinarazi Udalari, baldin eta isurketen kopuruaren %10etik gorako aldarazpena edo edozein elementu kutsakorren hein bereko aldaketa eragiten badu, etxebizitzak direnean izan ezik.

3.- Isurketa baimen berria eskatu, baldin eta merkataritza jarduerak edo industri prozesuak aurreko atalean adierazitakoak baino haundiagoak diren kopuruzko eta kalitatezko aldarazpen funtsezkoak jasaten badituzte.

Arestian aipaturiko beharrak betetzeko, erabiltzaileenganako errekerimenduak Udalak egingo ditu.

Udalak ofizioz egingo ditu egoki diren zuzenketa, interesatuak formulatzen den errekerimenduari jaramonik egiten ez badio.

23. Artikulua.- Arau hausteak eta zigorrak

1.- Ondokoak joko dira arau-haustetzat:

a) Dekekaturik dauden isurketak egitea.

b) Araudi honetan edo isurketa baimenean ezarritako mugak betetzen ez dituzten isurketak egitea, muga horiek desberdinak diren kasuetan.

c) Araudi honetan aurrikusten den informazioa eman nahi ez izatea edo ematen ukatzea.

- d) Ikuskaketa, kontrola eta zaintza lanak oztopatzea.
- e) Isurketa baimenean edo lekapenean ezarrita dauden baldintzak ez betetzea.
- f) Arrisku edo larrialdi egoeraren baten berri ez ematea.
- g) Titulartasunaren aldaketen berri ez ematea, 22. art.an ezartzen denaren arabera.
- h) Jardueraren edo isurketen kalitatearen aldaketen berri ez ematea, 22. art.an ezartzen denaren arabera.
- i) Oro har, Araudi honetan ezarritakoa hausten duen edozein jarduketa edo egintza burutzea.

2.- Arau-haustek honelaxe sailkatuko dira:

a) *Arinak:*

- b), e), g) eta i) ataletako arau haustek, lehenengoz egin bada eta estolderia sare publikoan, araztegietan edo gainontzekoi 50.000 pta.tik gorako kalterik eragin ez bazaie.

b) *Larriak:*

- c), d), f) eta h) ataletako arau-haustek

- b), e) eta g) ataletakoak ere, aurretik arrazoi berberengatik beste zigorren bat ezarri bada.

- i) atalekoak, estolderia sare publikoari, araztegiei edota gainontzekoei 50.000 pta.tik gorako eta 200.000 pta.tik beherako kalteak eragiten bazaizkie.

- Behin baino gehiagotan gertatzen diren arau hauste arinak.

c) *Oso larriak:*

- a) ataleko arau-haustek.

- c), d), f), g) eta h) ataletako arau-haustek, lehen ere horrelarik gertatu bada.

- i) atalekoa, estolderia sare publikoari, araztegi edota gainontzeikoei, 200.000 pta.tik gorako kalteak eragin bazaizkie.

- Behin baino gehiagotan gertatzen diren arau hauste larriak.

3.- Arau-haustek eginez gero, zigor hauek ezarriko dira:

a) Isuna

b) Baimena aldibaterako etetzea

c) Baimen osoa, edo horren zati bat, behin-betiko etetzea

4.- Arau-hauste arinak, legeria aplikagarrian ezarritako zenbatekora arteko isunez zigortu ahal izango dira.

Arau hauste larriak baimena aldibaterako kenduta zigortuko da, eta kenduta egongo da, zigorra eragin duen arrazoia desagertu arte.

Arau-hauste oso larriak baimena behin-betiko kenduta zigortuko dira.

5.- Egiten den arau-hausteak estolderia sare publikoaren osotasuna, sarearen ustiapen edo mantenimenduaz ardura duten pertsonen osasuna edota arazketa prozesua bera arriskutan jartzen baditu, zigor-espeditentearen instruktoreak aipatu isurketak berehala geldiarazteko agindu beharko du, eta errekerimendu horri jaramonik egiten ez bazaio, isurketa-baimenaren kautelazko etendura edo hori egiteratzeko behar diren obren burutzapena ere aginduko ditu, harik eta zigor-espeditentea ebatzi arte.

6.- Baimena aldi baterako edo behin-betiko etetzeko zigorrek berauek egiteratzeko beharrezko obren burutzapena eragingo dute. Obra horiek Udalak berak bururaraziko ditu toki sareetan, erabiltzaileak horretarako ematen zaion epearen barruan burutzen ez baditu.

7.- Zigor espeditenteen tramitazioa Administrazio Publikoen Lege Jaurpidea eta Administrazio Prozedura Arruntari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legean ezarritakoari jarraiki burutuko da, eta ezar daitezkeen isunak premiamendu bidez ordainarazikodira, borondatez ordaintzen ez badira.

8.- Zigor-espeditenteari hasiera ematea, arau-haustea egin den herriko Alkateari dagokio. Espeditentearen tramitazioa eta horren gaineko ebazpena hartzea, Alkate horren ardurapekoak izango dira, arau-haustea edozein delarik.

9.- Udalak atal honetan aurrikusten diren jarduketak gorabehera, beste erakunde batzuei eskatu ahal izango die espeditenteei hasiera emateko, indarreango legeriari jarraiki.

10. - Dagozkion zigorak gorabehera, urratzaileek eragin diren kalteak konpondu eta ordaindu beharko dituzte. Kalte-ordain zenbatekoa, zigorra ezarri duen erakundeak erabakiko du, kasuan kasu.

VII. Kapitulu

EBAZPENAK ETA ERREKURTSOAK

24. Artikulua.- Eskumenak

Udalak eman beharreko erabakiak Toki Jaurpideari buruzko Legeek ezarritako Sailek emango dituzte.

25. Artikulua.- Errekurtsuak

Udalak hartzen dituen erabakien aurkako errekurtsuen gaineko jaurpidea, azaroaren 26ko 30/92 Legean ezarritakoa izango da.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena

Gaurrengungo erabiltzaile guztiek isurketa baimena lortu beharko dute jarraian adierazten diren terminoetan eta epeetan, horien barruan estolderia sare pribatuak eta merkataritza eta industri prozesuak behar den beste egokituz, Araudi honen aginduak betetzeko xedez.

Hala ere, higiezin edo instalazioen ezaugarri fisikoak direla eta, aurreko leerroaldean aipatu den moldaketa osoarik edo partzialki egitea ezinezko gertatuko balitz, ez da halakorik egiteko eskatuko; dena den, Udalak ordezkoko neurri egokiak ezarri ahal izango ditu.

Bigarrena

A ereduko erabiltzaileei isilbidez emango zaie isurketa baimena.

A ereduko erabiltzaile horiei, edo horiek osaturiko elkarteei, seigarren xedapen iragankorreetan xedatutakoaren kalterik gabe, art. horretan xedatutakora moldatzeko errekerimendua egin ahal izango zaie, ondoan azaltzen diren inguruabarrak gertatzen badira:

- Industri isurkin kutsakorrekina batera hustea.
- Euri-uren kopuru handiak drenatzen dituzten azalera handietan kokaturik egotea.
- Estolderia sare publikoaren ustiapenean eragina izan dezaketen bestelako inguruabarrak.

Hirugarrena

B, C eta D ereduko erabiltzaileek sailkatze eta isurketa baimena eskatu beharko dute, erabiltzaile berrien baldintza berberetan.

Aipatu eskabidea Araubide hau indarrean jartzen den egunaren osteko sei hilabeteen barruan formulatu beharko da, eta egoki diren agiri eta egitasmoak erantsi beharko zaizkio.

Isurketa baimenaren emakidak eskatzen badu merkataritza eta industri prozesuak aldatzea, estolderia sare pribatuak moldatzea edo hondakin uren aurretratamendua burutzea, ondoko epe hauek emango zaizkio erabiltzaileari:

- a) Sei (6) hilabete, estolderia sare pribatuen konplexutasun tekniko gutxiko aldaketa edo moldaketa lanak badira.
- b) Hamabi (12) hilabete, aurrekoaz gain merkataritza edo industri prozesuetan nolabaiteko aldaketak egin behar baldin badira.
- c) Hogeita lau (24) hilabete, hondakin uren aurretratamenduak egin behar baldin badira.
- d) Beharrezkoak diren jarduketaren konplexutasunak eta kostuak hala aholkatzen dutenean, Udalak horiek kontutan harturik, kasu bakoitzerako epe egokiak ezarriko ditu; horiek hogeita lau (24) hilabetetik gorakoak izan daitezke.

Udalak isurketa baimenari buruzko iritzirik ematen ez duen artean, behin-behinean emandakotzat joko da, harik eta bere iritzia eman arte.

Laugarrena

Estolderia publikotik kanpo isuri arren, etorkizuneko estoldeira sare publikora isurtzea erabakitzen dutenentzako isurketa-baimenaren tramitazioa termino berberetan egingo da, eta sare horretan sartzeko eman dakien isurketa-baimeneko baldintzak bete beharko dituzte, I eta II motetako mugak betetzeko ezarrita dauden epeen barruan.

Bosgarrena

Isurketa lekapena, isurketa baimenaren epe eta termino berberetan eskatu beharko da.

Seigarrena

Udaleko estolderia sareak edo, hala badagokio sare pribatuak, oinarritzko estolderia sarearekin lotu nahi izanez gero, lehenengo drenaturiko aldeko mindazuloak deuseztatu egin beharko dira, dagokio Udalak deuseztapen lizentzian eman ditzan arauen arabera.

Zazpigarrena

Aurreko ataletan adierazitako epeak igaro egiten badira erabiltzaileek beren estolderia instalazio eta sare pribatuak, edo beren hondakin uren osaketa eta ezaugarriak, Araudi honetan aurrikusitakora moldatu gabe, indarrrik gabe geratuko da emandako behin-behineko isurketa baimena eta debekaturik horien hondakin urak estolderia sare publikoaren bidea hustea. Horretarako, Udalak estolderia sare publikoarekiko lotura mozteko lanak egingo ditu, baita hondakin ur horien isurketa galerazteko lanak ere.

Zortzigarrena

7.2. artikuluari dagokion I. koadroan biltzen diren I. ereduko mugak udalerrri osorako eskatuko dira, Astepeko Araztegian lehen mailako tratamendua funtzionatzen has dadinean.

7.2. artikuluari dagokion I. koadroan biltzen diren II. ereduko mugak ez dira udalerrri osorako eskatuko, harik eta Astepeko Araztegian bigarren mailako tratamendua funtzionatzen hasi arte.

Araudi honen 7.1. art.an ezartzen diren debekuak eskualde osoan beteko dira, araudi hau indarrean sartzen denetik hasita.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau indarrean egongo da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu ondoko egunetik aurrera.

Amorebieta-Etxanon, 1997ko martxoaren 21ean.